



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

LEIRE GORDO CASTRO

zinegotziak

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2018ko apirilaren 12an, arratsaldeko 18:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidentek, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2017/481 Dekretua

2017/483 Dekretua

2018/12 Dekretua

2018/17 Dekretua

2018/30 Dekretua

2018/52 Dekretua

2018/54 Dekretua

2018/69 Dekretua

2018/73 Dekretua

2017/482 Dekretua

2018/10 Dekretua

2018/14 Dekretua

2018/27 Dekretua

2018/50 Dekretua

2018/53 Dekretua

2018/55 Dekretua

2018/71 Dekretua

2018/75 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2018/105 Dekretua
2018/107 Dekretua
2018/112 Dekretua
2018/115 Dekretua
2018/121 Dekretua
2018/143 Dekretua
2018/147 Dekretua
2018/151 Dekretua
2018/159 Dekretua
2018/177 Dekretua
2018/169 Dekretua
2018/173 Dekretua
2018/180 Dekretua
2018/200 Dekretua

2018/106 Dekretua
2018/110 Dekretua
2018/113 Dekretua
2018/117 Dekretua
2018/124 Dekretua
2018/145 Dekretua
2018/149 Dekretua
2018/157 Dekretua
2018/162 Dekretua
2018/167 Dekretua
2018/171 Dekretua
2018/175 Dekretua
2018/199 Dekretua
2018/201 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA.- 2017 URTEKO LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRAREN ONARPENA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Lizartzako Udaleko 2017ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

1.- Lizartzako Udaleko 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

Diruzaintzako Izakin Likidoak, 2017-12-31n		354.144,43
Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n		+ 0,00
Aurrekontuko zordunak	+ 0,00	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	0,00	
- Aplikatu gabeko kobrantzak	0,00	
Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n		- 39.988,74
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	- 12.484,56	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak - Aplikatu gabeko ordainketak	- 27.504,18 0,00	
Diruzaintzako gerakin gordina		314.155,69
Saldo kobragaitzak	-----	
Gehiegizko finantzaketa lotua:	-----	
Diruzaintzako gerakin likidoa		314.155,69
Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	-----	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina		314.155,69

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	130.185,95
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	21.597,16
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	151.783,11

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	132.150,64
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	132.150,64

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

3.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea ospatuko den hurrengo bileran.

Jakinean gelditu da Batzarra.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

2017 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2017 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedienteen agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatiko erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

LAUGARRENA.- KREDITU ALDAKETA

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikuluko ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

PROPOSATZEN DA:

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
162.920.00.05	Langileen Bizi Asegurua	1.300,00	3.246,43	4.546,43
210.454.10.01	Kamio, Kale eta Bideen Mantenimendua	500,00	1.000,00	1.500,00
213.153.40.01	Ibilgailuaren Mantenimendua	2.000,00	2.000,00	4.000,00
220.920.00.02	Harpidetzak e.a.	1.500,00	2.500,00	4.000,00
224.920.00.99	Erresponstabilitate Zibila	1.000,00	492,91	1.492,91
421.335.00.01	Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea	4.225,00	67,60	4.292,60
430.410.00.01	Menditako Batzordea	3.500,00	8.835,18	12.335,18
601.153.20.01	Inbertsioak	19.000,00	23.762,48	42.762,48
GUZTIRA		33.025,00	41.904,60	74.929,60

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	-----	41.904,60	41.904,60
GUZTIRA		-----	41.904,60	41.904,60

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

BOSTGARRENA.- TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA. LAGUNTZA ETA HITZARMENAREN ONARPENA

Idazkaritzak 2018ko apirilaren 4an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta TKT-ren artean, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2018ko apirilaren 3an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2018ko apirilaren 4ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta TKT-ren artean, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA s.m.

2018 URTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Lizartzan, 2018ko apirilaren 12an.

BILDURIK

Batetik, LEIRE GORDO CASTRO NAN: 72.457.472 C, Lizartzako Udaleko (aurrerantzean Udala) alkatea, haren izenean eta ordeztu diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, XABIER SAIZAR INGIDUA, NAN: 15.997.047-J, Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M.ren (aurrerantzean TKT) lehendakaria, haren izenean eta ordeztu diharduena.

Bi alderdiok lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

- I.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean, Lizartzako Udalak eta TKT-k bat egiten dutela euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premi eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura, herritarrak euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarearen sustatzea dela hitzarmen honen xede eta funtsa.
- II.- TKT-k dela Tolosaldeko Ataria egunkari eta astekaria, Ataria Irratia eta www.ataria.eus guneak osatzen duten proiektu komunikatibo multimediuaren jabe eta ekoizpen arduraduna.
- III.- TKT-k kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Lizartza.
- IV.- TKT-k eraturako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia, eskualdean sortzen den informazioa herritarrei bitarteko anitzetan euskaraz komunikatzea dela, eta honela, euskararen erabilpena sustatzeko eta



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

normalizazioa eragiteko Udalak duen plangintzari ekarpen esanguratsua egiten zaiola.

V.- Beharrezkoa dela TKT-k aipatu helburuekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKT-ren arteko lankidetzak jardunean sakontzea, aintzat harturik Eusko Lege Biltzarraren “2/2016 legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa” -k Udalari ematen dizkion eskumenak eta TKT-k 2018-2021erako aurkeztutako proiektu komunikatiboa eta bideragarritasun plangintza.

VI.- Hitzarmen honek bat egiten duela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak “Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru laguntzak emateko modua arautuz 2016ko uztailaren 20an emandako aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140 zenbakia) eta, baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak “Euskararen erabilera sozialaren inguruan diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan” (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46 zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta osagarri dela.

VII.- TKT-k, gizartea zerbitzatzea duela helburu, ez duela irabazi helbururik eta, sortuko balitz, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko dela osoki.

Hau guztia honela izanik, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dugu, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen helburua da TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA. LANKIDETZA HITZARMEN honetan, TKT-k jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.
- b) Ataria Irratia 24 orduetan, urte osoan: gutxienez 5 orduko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko.
- c) Internet, urte osoan: ataria.eus web gunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- d) Eskualdeko tokiko hedabideekin elkarlan bideak jorratuko dira sinergiak baliatu eta interes komuneko eta kalitatezko edukiak ekoizteko, edozein euskarritan.

HIRUGARRENA. TKT-k, bigarren artikuluan aipatu ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatu, maiztasun ...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak eten gabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- b) Ataria hedabideek, beren beregi zainduko dituzte hedatutako informazioen pluraltasuna eta objektibotasuna, iritzi zein pentsamolde guztiei lekua egitenez, herritar guztien erreferentziazko komunikazio gunea izateko helburuarekin.
- c) Ataria marka gizarteratu eta harpide sarea zabaltzeko eta irismena areagotzeko ahalegin etengabea egingo da; urtez urteko egitasmoan finkatutako dira helburuak eta neurketa adierazleak.
- d) Herri guztietan dugun banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.

LAUGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau 2018. urtekoa izango da. Urtean urteko errolda eguneratuaren arabera, **biztanleko 5 €** emango dizkio 2018. urtean Udalak TKT-ri. Erabaki hau berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berariazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriketa dokumentuak (hitzarmen honetako 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizialak eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.
- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udala zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

e) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT-k.

BOSGARRENA.- Udalaren eta TKT-ren ordezkari osatutako lan-taldeak urtero bilera egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena egiteko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta, bestetik, dokumentu honetako hirugarren artikuluan hartutako konpromisoen betetze maila aztertzeko.

SEIGARRENA.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.a. puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpena osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diru-ekarpen osoa zurrizteko fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Edozein gisatara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremana eguneratua egon beharko du.

SEIGARRENA.- UDALAREN EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN ONARPENA

LIZARTZako Udaleko euskararen Plan Estrategikoa ikusi eta aztertu ondoren, aho batez, erabaki da:

.- LIZARTZako Udaleko Euskararen Plan Estrategikoa (2018-2022) onartzea.

.- Plan Estrategikoa, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan euskara normalizatzeko zuzendaritzara bidaltzea, aldeko txostena egin dezan.

ZAZPIGARRENA.- UDALA ETA FORU ALDUNDIAKO GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUAREN ARTEKO HITZARMENA

Gipuzkoako Foru Aldundiako Gizarte Politikako Departamentuak, udalek GFAk dituen legezko ordezkarien erroldako datuetara sarbidea ahalbidetzeko Lankidetzaren Hitzarmenaren eranskina proposamena jaso da, eta bere helburua, Lizartza Udalak, GFAk dituen legezko ordezkarien erroldako datuetara sarbidea ahalbidetzea da.

Ilido horretan, martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduaren bitartez legezko ordezkarien errolda arautzen zuen Foru Agindua aldatu da errolda hori Gipuzkoako udalek erabiltzeko aukera izan dezaten.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Horretarako, aipatutako Foru Aginduak, Gizarte Politikako Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek, hitzarmen berri bat onartzen du, hain zuzen, Etxeko Laguntza Zerbitzua Finantzatzeko.

Guzti kontutan izan da, Udal honek, ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Udala eta Foru Aldundiako Gizarte Politikako Departamentuaren arteko hitzarmena onartzea; honela dio:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO

Donostian, 2018ko maiatzaren 3an

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

MAITE PEÑA LOPEZ, Gipuzkoako Foru Aldundiako Gizarte Politikako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2018koan egindako bileran hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.

Eta bestetik

LEIRE GORDO CASTRO, Lizartzako Udaleko Alkatea eta ordezkaria, 2018ko apirilaren 12ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.

AZALTZEN DUTE

- I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.
- II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- III.-** Nahiz eta, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, zerbitzu hori eskaintzea udalen eskumenekoa izan, Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dute, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, Etxeko Laguntza Zerbitzua dofinantzatzea 2017-2019 aldian.
- IV.-** Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileentzako arreta hobetzeko, eta eskumen banaketarantz hurbiltzeko xedez, bi administrazioek bidezkotzat jo dute lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatzea, zerbitzuaren finantziario sistema arautze aldera.
- V.-** Bi administrazioen helburua da Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzen jarraitzea, baina Foru Aldundiaren parte hartzea zehaztuko da denborari dagokionez, hitzarmen honen III. Eranskinean jasotako erabakiak ezarritakoari jarraituz.

Hori guztia klausula hauen arabera

KLAUSULAK

LEHEN.- Helburua

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lizartzako Udalak sinatutako hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak aldeztu aurretik adostuta.

BIGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoa zerbitzuaren estalduran

Hitzarmen honen seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako udalerriri guztiei zuzendutako Foru Aldundiaren gehieneko ekarpena II. eta III. Eranskinetan azaltzen dena izango da.

Hiruhileroko ekarpena urtekoaren % 25aren baliokidea izango da.

Adierazitako zenbatekoek foru ekarpenaren gehieneko kopurua finkatuko dute eta, beraz, kopuru hori ez da aldatuko, nahiz eta zerbitzuaren jarduerak igogeraren bat izan.

HIRUGARREN.- Ordu bakoitzeko tarifaren gehieneko kopurua



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordu bakoitzeko gehieneko tarifaren kopurua oinarritzat hartuko da seigarren klausulan araututako foru finantzaketa zehazteko, zehazki hauek:

* Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa: 18,87 €

* Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

Udalak emandako zerbitzuaren orduko prezioa gehieneko tarifa baino txikiago balitz, foru ekarpenaren kalkulua egiteko erreferentziazat hartuko da 2018. urterako udalean 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen orduko prezioaren kopurua eta 2019ko urtarrilaren 1ean dagoena 2019. urterako, eta urtarrilaren 1ean dagokion urterako, hitzarmen honen indarraldia luzatzen bada.

LAUGARREN.- Zerbitzuaren erregulazioa

Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu beharko du Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.

BOSGARREN.- Ordaintzeko prozedura

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du, zortzigarren klausularen c) atalean jasotako hiruhileko naturala dagokion azken egunetik hasi eta hilabeteko epean, zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak, seigarren klausulan ezarritakoak, aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoa.

SEIGARREN.- Foru Finantzaketa

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira aldagai hauek:

a) Hiruhileroko fakturazioa:

Eskainitako zerbitzuen ordu kopurua hirugarren klausulan adierazitako zerbitzuaren tarifaz biderkatu ondoren ateratzen den emaitza izango da.

b) Koordainketa:

Erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

c) Aldundiaren ekarpen teorikoa:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Zenbateko hori a) atalean adierazitako hiruhileroko fakturazioaren eta b) atalean adierazitako erabiltzaileen koordainketaren arteko diferentzia da.

d) Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontua egokituta:

Udalerri guztiei zuzendutako Aldundiaren ekarpen teorikoei koefiziente murriztaile bera aplikatuz ateratzen den zenbatekoa da, baldin eta ekarpenen baturak gainditzen badu hiruhileroko ekarpen osoa, bigarren klausulan zehaztutakoa.

Koefiziente hori zatikera honen emaitza izango da: Aldundiaren hiruhileroko gehieneko ekarpena, aurreko paragrafoan adierazitakoa, Aldundiaren ekarpen teorikoen guztizkoaz zatitzea.

e) Aldundiaren oinarrizko ekarpena:

Ekarpena izango da d) atalean ateratzen den emaitza – Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta bide % 75, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

f) Aldundiaren gehieneko ekarpena hobekuntzengatik:

Aldundiaren aurrekontuaren araberrako ekarpen teorikoaren eta Aldundiaren oinarrizko ekarpenaren arteko aldea da, eta zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak finantzatzeko erabiliko da.

Hobekuntzak direla eta Aldundiaren gehieneko ekarpena udal mailan nahiz maila globalean egingo da (udalerri guztien batukaria).

Hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen dira hobekuntzen tipologia eta tipologia bakoitzari emandako ponderazioa.

Honela egiaztatuko dira:

- * 2018 urtea: hobekuntzak udal erregelamenduan edo ordenantza fiskalean jasota edo, bestela, idazkariak egindako ziurtagiriaren bitartez edo Etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzen duten enpresen kontratuetan hobekuntzak jasota.
- * 2019 urtea: hobekuntzaren benetako aplikazioa ebaluatzeko erabili beharreko adierazle formala kuantitatiboaren bidez; formula hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian adostuko da, horretarako eratutako batzorde teknikoak proposatuta.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

g) Aldundiaren lehendabiziko ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:

Udalerrian egindako eta egiaztatuako hobekuntza bakoitzerako f) atalean zehaztutako kopurua biderkatuko da hobekuntzari emandako ponderazioarekin.

Udalerri mailan, modu horretan kalkulaturako zenbateko guztien emaitza izango da Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzengatik.

Udalerri guztien baturak zenbateko globala emango du.

Halaber, aipaturako zenbateko globalaren arabera udalerri bakoitzari dagokion portzentaje bertikala kalkulatu da.

h) Hobekuntza Fondoaren soberakina:

f) eta g) ataletan kalkulaturako zenbateko globalen arteko diferentzia da. Soberakin osoa birbanatuko da udalerrien artean, g) atalean adierazitako portzentaje bertikalaren arabera.

i) Aldundiaren bigarren ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla eta:

g) eta h) ataletan kalkulaturako zenbatekoen batura da.

j) Ateratzen den foru ekarpena:

e) eta i) ataletan zehaztutako zenbatekoen batura da.

ZAZPIGARREN.- Abonu sistema

a) Likidazio aldia:

Urteko azken hiruhilekoaren likidazioa hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura egiten denez, likidazio aldik aurreko ekitaldiko azken hiruhileko naturala eta uneko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoak hartuko ditu.

b) Likidazioa:

Hiruhileko likidazio prozesua sinplifikatzeko xedez, honela egingo da Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren eta bigarren hobekuntzak direla eta Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorraren konputua:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 1.- Lehendabiziko hiru likidazioak, oinarrizko ekarpenaren arabera, erabat.
- 2.- Laugarren likidazioa, berriz, hobekuntzei dagokien ekarpenaren arabera, erabat.

c) Bidalketa epeak betetzea:

Likidazio sistemak udalerrri guztiei dagokien onformazioa izatea eskatzen duenez, zortzigarren klausulan aurreikusitako epea amaitu ondoren, informazio hori bidali ez duten udalei posta elektronikoz jakinaraziko zaie astebeteko epe luzaezina dutela eskatutako informazioa aurkezteko. Azken epe hori ez betetzeak hiruhilekoari dagokion likidazioa galtzea ekarriko du, eta udalerrria kanpoan utziko da kalkulu guztiak egiterakoan.

ZORTZIGARREN.- Informazio sistema

a) Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren datu guztiak, gutxienez jarraian aipatzen direnak: zerbitzuaren prezioa eta kostua, pertsona bakoitzeko xehetasuna zerbitzuaren ordu kopuruari dagokionez, erabiltzaileen koordinketa eta, behar bada, aplikagarri zaizkion hobekuntza motak. Hori guztia helburu hauekin:

- 1.- Zerbitzuari dagokion likidazioa egitea.
- 2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea gai hauen inguruan: medekotasuna duten pertsonen emandako arreta eta, hala dagokionean, beste kolektibo batzuei emandakoa; hobekuntzen ezarpen eraginkorra; eta bete gabe egon daitezkeen beharrak.
- 3.- Arreta jaso duten mendeko pertsonen buruzko datuak ematea IMSERSOri, kontuan hartuta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak definitutako espezifikazioak, araudiaren aipamen hauen bidez zehaztutakoak:
 - .- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena (BOE 302 zk., 2013/12/18, I. atala, 100.833 orrialdea)
 - .- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, autonomia pertsonalerako eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituena (alegia, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazioak) (BOE 313 zk., 2013/12/31, I. atala, 107.128 orrialdea).



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- b) Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna informatiko egokia eskainiko du, hau da, Extranet SAD.

Tresna horren erabilera eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren eskura bertsio aurreratu bat jartzen duen neurrian, Udalak azken tresna hori erabiliko du.

- c) Hauek dira informazioa bidaltzeko gehieneko epeak:

- a) Lehen hiruhilekoa: apirilak 30
- b) Bigarren hiruhilekoa: uztailak 31
- c) Hirugarren hiruhilekoa: urriak 31
- d) Laugarren hiruhilekoa: urtarrilak 31

BEDERATZIGARREN.- Jarraipen batzordea

Hitzarmen honen xede diren klausulen jarraipena egiteko, batzorde bat eratu ahal izango dela adostu dute bi alderdiek, non ordezkaritza parekidea izango duten.

HAMARGARREN.- Hitzarmena amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak

Hitzarmena amaitu edo iraungiko da arrazoi hauetakoren bat baldin badago.

- a) Bi aldeen arteko adostasuna.
- b) Aldeetako batek uko egiten badio hitzarmenari, beste aldeari jakinaraziko dio hitzarmena amaitutzat emateko aurreikusi den data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.
- c) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako baldintzak eta betekizunak betetzen ez badituzte.

HAMAİKAGARREN.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere interpretazio eta garapenerako zuzenbide administrazioko antolamendura joko da, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa espresuki beteta.

HAMABIGARREN.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean, eta 2017ko ruriaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, eta 2019ko irailaren 30 bitarteko idnarraldia izango du. Hitzarmenaren epea amaitzerakoan besterik gabe luzatu ahal izango da



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago luzatutako ekitaldirako.

Eta adierazitakoarekin ados daudela frogatzeko, parte hartzaileek agiri honen bi ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrarekin, goian aipatutako lekuan eta egunean.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiako Gizarte Politikako Departamentuari jakinaraztea.

ZORTZIGARRENA.- MOZIOAK

ASUNZION KLINIKA

Asunzion klinikako (Inviza) langile batzordeak , mozio hau aurkeztu du onarpenerako:

Asunzion klinikak eskualdeko hospital publiko lanak egiten ditu E.S.I.aren barruan. Diru publikotik 20 milioi euroko diru laguntza jasotzen duen klinika pribatua da, eskualdeari osasun arreta eman asmoz.

2013 urtetik hitzarmen bat negoziatzen saiatzen ari gara, baina enpresaren jarrera, naiz eta osasun sailetik negoziua seguru izan, eta beraien nahia dela akordiora iristea esan, bere jarrerarekin erakutsi du hori ez dela horrela.

Guk lan publikoa egiten dugunez, gure lan baldintza osakidetzarekin berdinduak izan behar dutela uste dugu.

Ezin dugu ahaztu hospitale publikorik ez duen EAEko eskualde bakarra garela. Eta gure baldintza prekarioak diren einean ekseintzen den arretak ezin du kalitatezkoa izan.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Hau guztia dela eta, BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela uste dugunez, Udal honi eskatzen diote:

- 1.- Hitzarmen duin bat sina dezatela eska diezaiola enpresari.
- 2.- Herritarron diruaren jarraipen zehatz bat egin dadila, kalitatezko osasun zerbitzu bat, eta lan baldintza egokiak berretsiko dituen.
- 3.- Berretsi dadila Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.
- 4.- Udala eska dezala Osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila; bereziki azpiegitura, langileria eta 3.2.1. - 3.2.2. - 3.2.4. - 3.2.5. - 3.3.2. - 3.3.4. puntuetan.
- 5.- Bidal diezazkiel Udal honek onartu dituen erabakiak Gasteizko gobernari

Invizako langile batzordearen proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

BEDERATZIGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 19:00tan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Leire Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia